

EL DIARIO VASCO

«Ezjakintasuna» edo «estrategia klientelarra» sumatu ditu EH Bilduk Euskorpus proiektuan

Hizkuntzaren teknologiak. · Erreferentziazko eragileak baztertzea leporatu dio Jaurilaritzari, besteak beste EHUren Hitz zentroa, Langune edo Elhuyar



Euskorpus proiektuaren aurkezpenean parte hartu zuten eragileak, lehendakaria buru. F. De la Hera



Gaizka Lasa
San Sebastián

Seguir

Jueves, 20 de febrero 2025, 15:21

Comenta



Eurkospus proiektuaren aurkezpenaren biharamunean etorri da EH Bilduren kritika. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako egitasmoa da, euskara adimen artifizialaren trenera igo dadin eta hizkuntzaren teknologien potentzial osoa baliatu dezan, eta asteazkenean ospatu zen ekitaldian lehendakariaz gain, EAJ alderdiko buruzagu nagusiak izan ziren, Aitor Esteban eta Andoni Ortuzar tarteko. Bada, gaur EH Bilduren bozeramaile den Pello Otxandianok egitasmoaren sorreran arloko erreferentziazko eragileak bazter uztea «akats estrategikoa dela» ohartarazi du.

Harridura eta ezinegona adierazi du horren inguruan, proiektu horren sorreran Jaurlaritzak bazter utzi dituelako «azken urteotan hizkuntzaren teknologien garapenean funtsezkoak izan diren hainbat eragile», hala nola EHUren Hitz ikerketa zentroa, Langune edota Elhuyar. EH Bilduko bozeramailearentzat, «akats estrategikoa da alde batera uztea Euskal Herriaren zati honetan metatuta dugun ezagutza handia, Europan erreferente izan gintezkeen sektore batean giltzarri izan diren eragileak».

«Arlo honetan garapen teknologiko esanguratsua dugu», gogorarazi du Otxandianok, eta, «horregatik, harriduraz ikusten dugu proiektu berri honek baliabide horiek guztiak alde batera uzten dituela eta beharrezko ibilbidea eta esperientzia ez duten aktore berriei protagonismoa ematen diela, kanpoan utziz bai erakunde publikoak, bai arlo honetan funtsezko zeregina izan duten enpresa pribatuak. Gure ikuspuntutik, muga askorekin sortu den proiektua da; estrategia txarra da benetan».

Jaurlaritzaren jokabidea «ulertezina da», EH Bilduko bozeramailearen iritziz: «Kasurik onenean, gure ekosistema publiko-pribatuari buruzko ezjakintasun handia erakusten du; kasurik txarrean, gure gaitasunak eta talentua aldentzen dituen estrategia klientelarra islatzen du, ibilbide egokirik gabeko aktore jakin batzuei laguntzeko. Hori erabaki bidegabea izateaz gain, herri gisa estrategikoa den esparru teknologiko bat gidatzeko ditugun aukerak neutralizatzen ditu neurri handi batean».

 Comenta

 Reporta un error